

4

Ikuspegi zabaleko ikerkuntza soziolinguistikoaren hainbat oinarri¹

F. Xavier Vila i Moreno

Soziolinguistikako eta Komunikazioko Unibertsitate Zentroko (CUSC)

zuzendaria, Bartzelonako Unibertsitatea

fxvila@ub.edu

Laburpena. Ikerkuntza soziolinguistikoaren egungo garapen-egoeraren berri ematen du artikuluak, kontuan izanda hizkuntza-gertakariaren dimentsio anitzeko ikuspegia. Paradigma teoriko eta metodologiko bateratu bat eskaintzea oso zaila dirudien arren, hizkuntza gizartean ikertzen duten diziplina guztien zenbait ezaugarri identifikatu daitezke. Zehatz-mehatz esanda, honako ezaugarriak agertzen dira ikerketa soziolinguistikoetan: hizkuntzaren sistema ez ezik erabilera, ideologiak eta gaitasunak ere kontuan hartzea; arreta handia jartzea ekintza eta aldaketa ulertzeko, eta, errealitate linguistikoa banakoaren eta komunitatearen arteko dialektikatik abiatuta aztertzea. • **Hitz-gakoak:** soziolinguistika, hiztun-komunitatea, hizkuntza-gertakaria, mikrosoziolinguistika, mesosoziolinguistika, makrosoziolinguistika.

Abstract. This article reports on the current development situation of sociolinguistic research, taking into consideration the perspective of the multi-dimensional language event. Even though providing a united theoretical and methodological paradigm seems very difficult, a number of features can be identified in all the disciplines that conduct research into language in society. Specifically, the following features appear in sociolinguistic research: taking not just the language system, but also the use, ideologies and competences into consideration as well; paying particular attention to understanding activity and change, and analysing linguistic reality starting from the dialectics between the individual and the community. • **Key words:** *sociolinguistics, speech community, language event, micro-sociolinguistics, meso-sociolinguistics, macro-sociolinguistics.*

1. SOZIOLINGUISTIKA: HAZTEN ARI DEN DIZIPLINA ARTEKO ALORRA²

I

Hazten ari da soziolinguistikotzat jo dezakegun ikerkuntza; hau da, hizkuntzaren eta gizartearen arteko interfazeaz arduratzen dena. Horrek, agian halabeharrez, ondorio bat izan du: soziolinguistika ikerketa-paradigma bakarra, itxia, ongi ezarria eta erabat koherentea duen diziplina bakartzat hartzeko aukera urrunduz joan da. Gaur egun, duela 30 edo 40 urte ez bezala, asmo handiko helburu hori jada ezin da mugatu diziplinaren sortzaileek proposatutako bizpahiru ikuspegi linguistikoetatik eta soziologikoetatik abiatuta egindako ikerkuntza osoa paradigma bakar batera murrizten saiatzera (Fishman 1972). Antzeko eginkizun bat ia ezinezkotzat jo zen jatorrizko korrante soziolinguistikoaren artetik hirutara mugatzen saiatu zirenean —Laboven bariasionismoa, Fishmanen hizkuntzaren soziologia, eta Hymesen komunikazioaren etnografia (Figueroa 1994)—, eta denboraren joanak zeregin hori zaildu besterik ez du egin.

Hain zuzen, azken hamarkadotan ikerkuntzaren eztanda gertatu da: lurrera erori eta txiki-txiki egindako ispilu baten antzera, izugarri dibertsifikatu dira soziolinguistikotzat hartu beharreko ikuspegiak. Nolabait esatearren, soziolinguistika hedatu egin da, eta gaur egun hainbat gai azaltzea du helburu: besteak beste, munduko hizkuntza-sistema (ikus Swann 2003 eta Fishman 1998) eta pertsona arteko buruz buruko interakzioetan gertatutako kode-txandakatzeak (ikus, adibidez, Li Wei 1994 eta Myers-Scotton 1993). Izan ere, hamarkada gutxitan, hizkuntzaren eta gizartearen arteko interfazea luberri baten itxurakoa izatetik diziplina-sorta eder batek landutako baratze bat izatera igaro da. Hala, postulatu linguistikoenetatik abiatuta, soziolinguistika bariasionistari beste hainbat ikuspegi alternatibo gehitu zaizkio: adibidez, diskurtsoaren analisi kritikoa, corpusaren plangintzaren eta estandarologia konparatzailearen azterketa, eta hizkuntza-ukipenaren ondoriozko fenomenoaren ikerketa. Horiekin guztiekin, dialektologia sozialak ukigune teoriko eta metodologiko gutxi batzuk bakarrik ditu. Dena den, dibertsifikazio hori oso txikia da, postulatu soziologikoenetatik abiatuta hizkuntza/gizartea binomioaren inguruan egindako ikerkuntzaren izugarriko eztandarekin alderatuz gero. Horretan, bi ikuspegi klasikoei —soziologikoari eta antropologikoari—, gutxienez, eta nahikoa finkatuta dauden batzuk bakarrik aipatzearen, hauek gehitu zaizkie: hizkuntzaren gizarte-psikologia, hizkuntza-politologia, hizkuntza-zuzenbidea, demolinguistika eta susperraldian dagoen hizkuntza-ekonomia. Gainera, soziolinguistikak iturritzat dituen oinarritzko diziplinak paradigma

**Litekeena da
erantzuna
baiezkoa izatea,
eta
soziolinguistikaren
adiera zabalaren
zeharkako
lehenbiziko
elementua, hain
zuzen ere,
hizkuntzaren
kontzepzio
soziolinguistikoa
izatea.**

bera izatetik urrun daude (hizkuntzalaritzara mugatuta, zein da gaur egun ikuspegi hegemonikoa zientzia horretan: generatibismo-ereduren bat? Hizkuntzalaritza kognitiboa? Hizkuntzalaritza aplikatuaren adarren bat?), eta beraz, soziolinguistika osoarentzako esparru teoriko orokorra eta bakarra sortzeko xedea, ziur aski, kimera lortezin bilakatu da.³

Egoera horretan, argudia daiteke soziolinguistikak barne hartzen duena haren osagaietako batera edo batzuetara murriztu daitekeela, eta baldintza horietan diziplina berriz definitu. Beste modu batera esanda: soziolinguistika bere adiera zabalean azaldu beharrean —“hizkuntza-barietateen, -funtzioen eta -hiztunen ezaugarrien azterketa, hirurak etengabe eta elkar erlazionatzen eta aldatzen diren heinean, bai hizkuntza-komunitateetan bai hizkuntza-komunitateen artean” (itzulpena, Fishman 1995 [1972]: 39)—, diziplina berriz definitzen saia gaitezke, dela helburuen arabera dela ikuspegi epistemologiko bakar batera mugatuz. Hain zuzen ere, nazioartean, aukera hori dute gogokoen bariasionista askok eta askok, *soziolinguistika* terminoa heterogeneotasun egituratuaren azterketa kuantitatiborako gordetzen baitute (ikus Chambers 1995). Dena den, horretarako, bidesari bat ordaindu behar izan dute: alde batera utzi behar izan dituzte beste arloetako ekarpen gehienak; soziologiakoak, antropologiakoak, gizarte-psikologiakoak, hizkuntza-politologiakoak eta diskurtsoarekin lotutako diziplinetakoak, besteak beste.⁴ Hala ere, erabat bariasionistak ez direnen artean, ez dirudi ikuspegi murriztailei atxikitzen direnik une batean ala bestean beren burua soziolinguistatza hartu duten gehienak. Zehaztasunetan sartzeko asmorik gabe, arestian aipatutako Joshua A. Fishman beraz gain —eta esan gabe doa, hau sinatzen duenaz gain: ikus Boix eta Vila 1998, Vila 2004—, asko dira soziolinguistikaren ikuspegi zabalaren alde egiten duten autore garrantzitsuak, bai *soziolinguistika* kartel tradizionalaren azpian —besteak beste, Ammon, Dittmar eta Mattheier (arg.) 1987, Berutto 2003, Blas Arroyo 2005, Coulmas 2005, Coupland, Sarangi eta Candlin (arg.) 2001, de Swaan 2003, Heller 2002, Mesthrie (arg.) 2001, Mesthrie 2010, Spolsky 1998, Swann et al. 2004, Villena 1992— bai *ekolinguistika* kartel erakargarriagoaren (behinik behin, marketinaren aldetik) azpian —esate baterako, Baggioni 1997, Bastardas 2007, Calvet 1999, Junyent 1998, Mufwene 2001, 2008.

Testuinguru horretan, dispertsioa gero eta handiagoa izanda eta guztien paradigma bakarrera murrizteko zailtasunak egonda, batek zera galde diezaioke bere buruari: oraindik ba al daude ukiguneak soziolinguistikaren adiera zabalaren barruan sartu ohi diren diziplina guztien artean? Enpirikoki dakigu terminoa batez ere adiera horrekin

erabiltzen dela, baina ba al daude oraindik soziolinguistika adiera zabalean ulertzen jarraitzea bultzatzen duten lotuneak? Are gehiago: soziolinguistikaren adiera zabal horrek egiten al dio ekarpen bateraturik ikergai duen errealitatearen ezaguerari? Ba al daude oraindik elementuak hizkuntza-soziologoek, hizkuntza-antropologoek, bariasionisten, glo-topolitologoek, soziopsikolinguistek eta beste batzuen arteko interkonexioa errazten dutenak, eta beraiantzat ez ezik hertsiki lotuta dauden beste diziplinetako lankideentzat baliagarriak direnak, hizkuntza gizartean aztertzekeo garaian? Litekeena da erantzuna baiezkoa izatea, eta soziolinguistikaren adiera zabalaren zeharkako lehenbiziko elementua, hain zuzen ere, hizkuntzaren kontzeptio soziolinguistikoa izatea.

2. HIZKUNTZA-GERTAKARIAREN DIMENTSIO ANITZEKO IKUSPEGIA

I

XX. mendeko zientzia linguistikoaren zatirik handiena oinarri baten gainean eraiki da: errealitate sozialetik jakinda urruntzea (ikus Boix eta Vila 1998: 1. kap.). Hizkuntzalaritza modernoaren lan-programa izango zena diseinatzeko garaian, Ferdinand de Saussurek hainbat aukera hartu zituen, hizkuntzaren azterketa eta hizkuntzaren hiztunak bereizi zituztenak: hizkuntzalaritzak beste giza eta gizarte-zientziekiko autonomia izan behar zuen; hizkuntzaren sistema abstraktuan arreta jarri behar zuen, eta ez hizkuntzaren erabileran; eta sinkronian interesa izan behar zuen, eta ez diakronian. Lan-programa horrek ondorio garrantzitsuak izan zituen, eta gainera, hemen axola zaizkigun ezaugarri orokorrei dagokienez, XX. mendeko ikerkuntza linguistikoan hegemonikoa izandako beste korrante batek bere egin zuen: Noam Chomskyren generatibismoak, hain zuzen.

Hizkuntzalaritzaren ikuspegi horrek eta duela urte gutxira arte izan duen hegemoniak ondorio negatibo bat izan dute: hizkuntzaren irudi lauegia proiektatu da, fenomeno linguistikoaren dimentsio bakar batean zentratutakoa: sisteman, alegia. Hala ere, ez da bidezkoa identifikazio hori egungo hizkuntzalaritza formalari bakarrik egozte, horretan, zalantzarik gabe, beste faktore batzuk ere lagundu baitute. Adibidez, identifikazio hori bera asko bultzatu izan du hizkuntza idazketara murrizteko eta hizkuntzaren kodifikazio arauemailea egiteko edozein prozesutan inplizitu dagoen hizkuntzaren erreifikazioak. Hizkuntza-hiztegiak eta -gramatikak izateak lagundu egiten du hizkuntza hiztunengandik banatuta dagoen entitate autonomotzat hartzen. Bestalde, eskola-giroan belaunaldi berriei arauak irakasteko egindako ahaleginak

**Komunitate
baten barruan
hizkuntza
erabiltzea,
praktika
linguistikoa,
nahitaezko
baldintza da
benetan
hizkuntza bat
edukitzeko
hizketan egiten
dute hitzunek
hizkuntza.**

ere bultzatu du hizkuntza sistema gisa bakarrik ulertzera. Edonola ere, eskoletako eta unibertsitateetako hainbat ikasle-belaunaldi *hizkuntza* ideiarene eta *sistema* nozioaren arteko sakoneko baliokidetasuna onartuz hazi dira, eta hizkuntza bizi propioa duen eta funtsean hitzunengandik independentea den egitura dela barneratu dute.

Hizkuntza zeinu-sistematzat jotzea ez da berez erremediorik gabeko arazoa, alderantziz baizik: hizkuntzak, oinarri-oinarrian, gizakion eskura dauden zeinu-sistemak dira. Arazoa beste kontu batek eragiten du: hizkuntza sistema batera soilik mugatu nahi izateak, beste edozein dimentsio kenduta; izan ere, azkenean, identifikazio horren ondorioz, ezin zaio heldu errealitate linguistikoari bere osotasunean eta konplexutasunean, eta zailagoa da (beste) gizarte-zientziak hizkuntza-gertakariarekin lotzea.

Komunikatzeko zeinu-sistema bat izateaz gain, hizkuntza, funtsean, ekintza ere bada, ariketa: hizkuntza gizakion arteko interakzioa da. Hertsiki esanda, gizakion arteko interakziorik gabe ez dago hizkuntzarik: hiztegiek, gramatikek, inbentario fonologikoez, fraseologia-bildumek eta halakoek hizkuntzen corpusa soilik gordetzen dute; hau da, gorputz bizigabeak dira. Dena den, hizkuntza bat egon dadin (hitzaren adiera osoan), hizkuntza hori erabiltzen duten pertsonak egon behar dute, hizkuntza, baita ere eta batez ere, giza jarduna delako, giza portaera. Alde horretatik, oso adierazgarria da Coulmasek (2005) *hizkuntza* eta *lasterketa* nozioen artean egindako alderaketa: *lasterketa* bat ez da “gauza” bat, prozesu bat baizik, giza talde batek portaera jakin —eta kolektibo— bat hartzen duenean hasten dena, eta jardun kolektiboa eteten denean amaitzen dena. Komunitate baten barruan hizkuntza erabiltzea, praktika linguistikoa, nahitaezko baldintza da benetan hizkuntza bat edukitzeko. Izan ere, hitz-joko batekin adieraz badezaket, hizketan egiten dute hitzunek hizkuntza. Horregatik, fenomeno linguistikoari heltzeko garaian interakzioak duen garrantzia dela-eta, hainbat autorek nabarmendu dute hizkuntzez beharrean *hizkuntzatzeaz* (ingelesez, *languageing*) hitz egin beharko litzatekeela, ariketa egituraren aurretik jartzeko (adibidez, Scheter 2000 eta Bastardas 2004: 26).

Baina kontua ez da amaitzen sistemaren eta praktika sozialaren arteko dikotomian. Hizkuntza-gertakariak beste bi dimentsio dakartza berekin, hura behar bezala ulertzeko funtsezkoak direnak. Batetik, hertsiki sistematikoa edo estrukturala den dimentsioaz eta praktika sozialaren dimentsioaz gain, hizkuntzak garrantzi handiko beste dimentsio bat du: ideologiarena, irudikapenarena edo jarrerarena (gogokoen dugun etiketa erabil dezakegu). Hizkuntzak, halabeharrez eta praktika

soziala den heinean, hainbat balorazio eta epai jasotzen ditu, batzuetan adostasunak eta besteetan desadostasunak eragiten dituztenak. Hizkuntzaren historian, soziolinguistikan, psikosoziolinguistikan, pragmatikan eta beste hainbat diziplinatan egindako ikerketek behin eta berriz erakutsi dutenez, forma linguistiko jakin batzuk edo besteak aukeratzea, beste faktore batzuen artean, aldagai psikologikoen araberakoa da; esate baterako, hiztunaren motibazioa, aurreiritziak, asmoak eta testuinguruaz egindako balorazioa (Blommaert 1999; Schieffelin, Woolard eta Kroskirty 1998; Giles eta Coupland 1991; van Dijk 1998). Eta ez dut sakonduko hala nola ontasunari, musikaltasunari, arruntasunari eta jatoritasunari buruzko balorazio ugarietan, baina kontuan izan behar da horiek ere aldaketa linguistikoa baldintzatzen dutela, komunitate elebarrarretan barne (Lippi-Freen 1997, Tusón 1988). Azken finean, hizkuntza jakin bat zer den definitzean edo, zehatzago esanda, hizkuntza baten barruan zer bariedade dauden definitzean, hein handi batean, hertsiki egiturez baino gehiago irudikapenez ari gara⁵. XIX. mendearen amaieran, G. I. Ascolik adierazi zuen franko-proventzera eta erretoromaniera izeneko hizkuntzak zeudela; bada, gutxienez orduetik dakigu hizkuntzen mugak ezartzean hiztunen kontzientzia kolektiboak kontuan ez hartzea, behinik behin, problematikoa dela (ikus Calvet 1996 eta Kremnitz 2006). Elaborazio bidezko hizkuntzen indibiduazio-prozesua (Ausbau) —edo aurkako Einbau prozesua, hau da, hainbat bariedade hizkuntza berean bateratzea— bariedadeen adibidez beteta dago; hau da, sistema linguistikoaren adibidez. Adibide horiek, ikuspegi ideologiko desberdinetatik abiatuta, hainbat kategoriatan sailkatu izan dira: batzuetan hizkuntza baten bariedadetat hartu dira; beste batzuetan, beste hizkuntza baten bariedadetat; eta besteetan, hizkuntza independentetat (Lamuela 1994, Castellanos 2000, Fishman 2006; Mufwene 2001, 2008). Argi eta garbi, sistemaren definizioa eta hizketakide jakinekin edo egoera jakinetan hura erabiltzeko aukera, haren bilakaera, baita hura desagertzea edo berreskuratzea ere, hein handi batean, hizkuntzaren ideologia-, irudikapen- edo jarrera-osagaiaren menpe daude. Usteek, jarrerek eta ideologiek garrantzi handia dute fenomeno linguistikoan, eta dimentsio ordezkaezina direla esan liteke, nahiz eta dimentsio estrukturala eta praktika soziala bezalakoa ez den.

Bestetik, eta *last but not least*, hizkuntza-gertakariaren ezaugarria da, halaber, hizkuntza jakitetzat ere hartzea: hau da, ahoz zenbait gauza egiten jakitea, ikasitako —edo ahaztutako— gaitasun bat gure (bir)sozializazioko uneren batean (Riley 2010), oso denbora-, espazio- eta gizarte-testuinguru jakinetan, gramatika-ezagutzak izateaz haratago

**Hertsiki
sistematikoa edo
estrukturala den
dimentsioaz eta
praktika
sozialaren
dimentsioaz gain,
hizkuntzak
garrantzi
handiko beste
dimentsio bat du:
ideologiarena,
irudikapenarena
edo jarrerarena.**

doana eta komunikazio-gaitasun bihurtzen dena (Hymes 1972). Interakzioaren soziolinguistikak eta hizkuntzalaritza aplikatuak oro har aldarrikatzen dutenez, eta eredu generatibisten hiztun/entzule idealen hipotesiari kontra eginez, mundu errealean ez dago inor bere hizkuntza “perfektuki” dakienik. Perfekzio hori guztiz ezinezkoa da, baita teorikoki ere; izan ere, sistema ireki bat (behinik behin, lexikoa erreperitorio irekia eta amaiezina da) goitik behera jakiteaz ari gara. Gainera, sistema hori denbora guztian aldatzen ari da, halabeharrez heterogeneoa da, eta etengabe aldatzen ari den komunikazio-gaitasun plurilektal edo eleaniztun batean egituratuta dago (Europako Kontseilua 2002). Munduan askotariko pertsonak daude, eta batzuetan haien ezagutza linguistikoak antzekoak dira, beste batzuetan ez hain antzekoak, maiz oso desberdinak, baina beti daude transformazio-prozesuan eta ikasi eta ahaztu egiten dira. Hain zuzen ere, hiztun horien arteko interakzioak hizkuntza guztien oinarrizko ezaugarri bat azaltzen du: hizkuntzak etengabe aldatzen ari dira (ikus Mufwene 2001, 2008). Dena den, argi dago ezagutza-motek eta hizkuntzen jabetze-prozesuek, irudikapenen galbahetik pasatuta, asko baldintzatzen dutela nork erabiltzen duen zer eta norekin, bai eta erabilitako barietateak zer forma hartzen duen ere.

Hebreera modernoaren adibideak erakusten du zein garrantzitsua den, hizkuntza jakin baten errealitatea behar bezala ulertzeko, aipatutako lau dimentsioak aldi berean kontuan hartzea. Jakina denez, mende askoan hebreera *ia hilda* egon zen. Haren corpusa milaka urtean zehar gorde zuten hizkuntza sakratutzat zutelako, eta kontu handiz erreproduzitu zuten neohiztun-belaunaldi askok eta askok (neohiztun horiek oso gutxi baliatzen zuten hebreera, batik bat erritueterako). Hala eta guztiz ere, xx. mendearen hasieran, historian bakarra izan den berbernakularizazio-prozesu batean murgildu zen hebreera: milaka urtean zehar hizkuntza sakratu gisa gorde zuten muga soziolinguistikoak hautsiz, Palestinan bizitzen jarritako kolono sionistek hebreera ikasteari ekin zioten, eguneroko bizitzan ohiko hizkuntza formaltzat zein informaltzat erabiltzen hasi ziren —batez ere *kibbutzim* delakoetan—, eta azkenean, israeldar-belaunaldi berrien lehen hizkuntza bilakatu zen (Cooper 1994, Spolsky eta Shohamy 2001, eta Myhill 2004).

Berbernakulazio-esperientzia horren arrakasta ukaezina da. Gaur egun, hebreera Israelgo lehen hizkuntza ofiziala da, israeldar gizarteko hizkuntza hegemonikoa, eta Israelen gizarteratzeko immigrazio berriek nahitaez ikasi beharreko hizkuntza. Dena den, berbernakulazioaren arrakastak ustekabeko dilema bat eragin du: hebreera modernoa eta hebreera klasikoa hizkuntza bera al dira? Inork ez du zalantzan jartzen

egungo Israelgo hizkuntzaren jatorria, hein handi batean, hebreera klasikoa dela. Dena den, kontuan izan behar da berbernakularizazio-prozesuak zenbait fenomeno ekarri dituela berekin, hebreera klasikoaren sistema asko aldatu dutenak. Hasteko, kolonoek, hebreeraz hitz egite-rakoan, beren jatorrizko lurraldean erabiltzen zituzten hizkuntzak nahasten zituzten, batik bat judu-alemana eta hizkuntza eslaviar batzuk. Bigarrenik, kolonoek korrika eta presaka landu behar izan zuten tresna linguistiko klasikoa, XX. mendeko gizarte bateko adierazpen-premiei erantzuteko; izan ere, besteak beste, lexikoa, fraseologia eta diskurtso-estiloak falta zitzaizkien, arbasoen garaian ez baitzeuden. Gainera, hurrek berbernakularizazio-prozesu hori egin zutenean, hizkuntzak berregituratze asko jasan zituen, eta itxuraz kreolizazioaren antzeko prozesu bat izan zuen. Labur-labur esanda, halaber, mendeetan zehar gordetako sistemak, berriz ere erabiltzen hasi zenean, hainbat al-daketa jasan zituen fonologian, morfologian, lexikoan, sintaxian eta abar, eta horiek guztiek asko eraldatu zuten hizkuntzaren fisonomia. Eta transformazio horrek, noski, galdera bat ekartzen digu burura: kontuan hartuta zer aldaketa izan zituen hizkuntzak XX. mendeko bizi-modura egokitzeko, ez al litzateke zuzenagoa izango hebreera modernoa —*ivrit* edo *israelera*— hizkuntza berrizat hartzea? Hain zuzen ere, zenbaitek (Wexler 1990) hebreera modernoak izaera semitikorik ez duela adierazi dute; hain muturrekoak ez diren beste ikuspuntu batzuen arabera, nabarmena da hizkuntza berriaren eta zaharraren arteko aldea. Hauxe esan zuen Ghil'ad Zuckermanek (2006 eta 2008), gaiari buruzko hainbat lan argitaratu dituen autore batek:

“Indeed, the genetic classification of Israeli [hau da, hebreera modernoa] has preoccupied linguists from the beginning of the twentieth century. The still prevalent, traditional view suggests that Israeli is Semitic: (Biblical/Mishnaic) Hebrew revived (cf. Rosén 1956 and Rabin 1974). Educators, scholars and politicians have contributed to this assumption, in their efforts to impose a nationalist narrative on linguistic reality. Revisionists counter that it is actually Indo-European: Yiddish ‘relexified’, that is Yiddish with Hebrew vocabulary (cf. Horvath and Wexler 1997). My own hypothesis is that Israeli is a hybrid language, both Semitic and Indo-European. I argue that both Hebrew and Yiddish act equally as its primary contributors, accompanied by many secondary contributors: Russian, Polish, German, Judaeo-Spanish (‘Ladino’), Arabic, English etc. Thus, the term Israeli is far more appropriate than *Israeli Hebrew*, let alone *Modern Hebrew* or *Hebrew tout court*.”

< <http://www.zuckermann.org/mosaic.html> >

Hizkuntzak ezin dira espezieekin eta populazioekin parekatu, eta arrazoa argi dago: hizkuntzak jardunak dira, eta espezieak, berri, aktore-multzok.

Noski, hemen dilema mahaigaineratu besterik ez dugu egin nahi. Adierazitako aurrekariari eta argumentuei begiratuta, gaiak ez dirudi zentzugabea, funtsean beste hainbat kontuk kutsatzen duten arren⁶. Izan ere, beste hizkuntza askoren kasuan, onartu egiten da Zuckermannek proposatutakoaren antzeko bereizketa bat: adibidez, latina eta hizkuntza erromanikoak; greziera klasikoa eta greziera modernoa; anglosaxoiera, tarteko ingelesa (*Middle English* delakoa) eta ingeles modernoa; eskandinavier zaharra eta hizkuntza eskandinaviar berriak; eta eslavier zaharra eta egungo hizkuntza eslaviarrak. Nolanahi ere, hemen interesatzen zaiguna da, hain justu, zer terminotan azaldu behar den hebreeraren (modernoren) paradoxa: hebreeraren sistema milaka urtez gorde zen, hain zuzen ere inork ez zuelako erabiltzen, baina berriz ere lehen hizkuntza bihurtu zenean eta hitzun-komunitate batek erabilera-hizkuntzat hartu zuenean, hizkuntza-sistema hura asko aldatu zen, hizkuntza berbera dela pentsatzen jarraitu beharko ote genukeen zalantzan jartzeraino. Beste modu batera esanda: hizkuntzaren erabilpenak eta jabetzeak, lehen ez zeuden motibazio batzuen eraginez berri eta baliatutakoek, azkenean —eta agian halabeharrez— , sistema bera aldatzen dute.

Laburbilduz: hizkuntza-gertakariari heltzeko orduan, oinarrizko lau dimentsio bereizi behar dira, gutxienez:

- Egitura linguistikoa; hau da, sistema.
- Erabilerak edo praktika linguistikoak.
- Uste, irudikapen eta/edo ideologia linguistikoak.⁷
- Ezagutza linguistikoak eta ezagutza horiez jabetzeko bideak.⁸

Lau dimentsioek ematen diote forma modu bateratuan eta elkar erlacionatuan *hizkuntza-gertakari* (hizkuntzarena, azken finean) esan diezaiokegun horri, eta nekez irits gaitezke ulertzera baten funtzionamendua aldi berean besteekiko interesa agertu gabe. Liburuki honetan bildutako lanetan lau dimentsioak bereizteko ezintasun horren adibideak daude, badaezpada. Bretxa eta Pareraren, Labrañaren eta Fukudaren lanetan adierazten denez, argi dago hizkuntza baten erabilera aktiboa izateko hitzunik nahitaez hizkuntza horren gutxieneko ezagutza izan behar dutela; zehazten zaila da, eta *n* maila esan diezaiokegu. Usteek garrantzia dute ikaskuntza-prozesu horietan, eta zenbait pertsonaren eta talderen alde aurreko jarrera —hau da, ideologia—, jarrera- eta irudikapen-konfigurazioa— beste batzuen baina askoz ere hobea da inguruko hizkuntza bakoitza ikasteko eta/edo erabiltzeko. Gainera, Rosellóren

lanarekin bat etorriz, segur aski uste horiek aldatu egiten dira denbora-ekin, eta Sorollak dioen moduan, eragina dute esparru makrosoziolinguistikoa. Azkenik, argi dago aipatutako faktoreen bateratzeak — nork erabiltzen du hizkuntza eta zer egoeretan, nork ikasten du eta zer mailaraino, eta zer balorazio egiten dira—, azkenean, eragin handia izango duela hizkuntzaren sisteman.

Hizkuntza-gertakariaren lau dimentsioen arteko interkonexioa grafikoki adieraz daiteke, piramide baten bidez. Piramide horren erpin bakoitzean dimentsio bat dago (ikus 1. irudia).⁹ Irudiak erakusten digu ikerkuntza osoa hizkuntza-gertakariaren alderdi bakar batean — sisteman, erabileretan, usteetan edo jabetzean— zentratzeko asmoa izan arren (zilegi da asmo hori izatea), aztertutako fenomeno osoki ulertzeko, lehenago edo beranduagoa, ekuazioko beste elementuak kontuan hartu beharko direla.

1. irudia. Hizkuntzaren piramidea

Usteak (ideologiak)—Sistema (corpusa)—Erabilera (praktikak)—Jabetzea

Abantaila bat du azaldutako lau dimentsioek elkarren artean duten erlazioa esplizitu egiteak: “hizkuntzaren” inguruko ikerketaren eta gainerako giza eta gizarte-zientzien arteko konexioa errazten du. Lau dimentsio horiek hala nola esparru sozial, politiko, ekonomiko eta ideologiko global batean gertatzen dira eta, nola ez, dimentsio eta esparru horiek hertsiki lotuta daude. Beraz, lau dimentsioak ulertezinak dira beren testuinguru estralinguistikoa gabe. Horrenbestez, praktika linguistikoak praktika sozial orokorren azpimultzo bat dira (oso berezia, hori bai), eta batak ez dira ulertzen besteak gabe. Adibidez, ezinezkoa da kode-aukeraketak eta -txandakatzeak ulertzea baldin eta ez baditugu kontuan hartzen tartean dauden komunitateetako botere-harremanak. Halaber, hizkuntza baten egitura geolektala edo soziolektala ezin da ulertu baldin eta ez bada erlazionatzen hizkuntza hori hitz egiten duen komunitatearen konfigurazio espazialarekin eta egitura sozialarekin. Era berean, hizkuntzaren jabetze-prozesuak sozializazio-prozesu orokorren barruan gertatzen dira, eta biek elkarri eragiten diote; ez da oso urrun joan behar jakiteko munduan zenbait kolektibok oso erraz ikasten dutela bizilagunen hizkuntza, eta bizilagunek, antza, sortzetiko ezintasuna dutela elebakartasunetik ateratzeko. Alde horretatik, argi dago irudikapen, diskurtso eta ideologia linguistikoak ulertzeko funtsezkoa dela horiek guztiak komunitate bakoitzeko gainerako imajinario

**Hizkuntza bat
birus batekin
parekatu daiteke:
ez dira haiek
bakarrik
bizitzeko gai, eta
organismo
bizidun batean
sartzen direnean
bakarrik
aktibatzen dira.**

soziokulturalarekin erlazionatzea. Eta esan beharrik ez dago hizkuntzaren sistema modu konplexuan (baina ukaezinean) hizkuntza hori erabiltzen duen gizarteko sistema soziokulturalarekin eta semiotikoarekin inbrikatzen dela: nahikoa da pentsatzea zenbateraino bereiz daitezkeen (ala ez) hizkuntza baten ohorezko tratamenduak eta hizkuntza hori hitz egiten duen gizarteko egitura soziala eta etiketa.

Ikuspegi horrek ondorio interesgarri bat du, zenbait giro intelektualetan eta politikotan hizkuntzak duen aura erromantikoa desagerrazten baitu: hizkuntza ez da komunitate baten *arima*, zenbait ikuspegi esentzialistak adierazten duten moduan (Herderen garaitik aurrera, behinik behin). Asko jota —eta jada izugarri esatea da—, hizkuntza herri bakoitzaren kontzeptuzko eta ahozko esperientzia sekularren biltegia da, bizirik daudenen eta hilda daudenen arteko lotura kolektibo nagusia, identitate bat eraikitze oso oinarri garrantzitsua, errealitate soziala ulertzeko nahitaetzkoa den taldeen arteko muga (Fishman 2001, Harrison 2007). Hizkuntzak ez du espiritu bat izan beharrik gizakion bizitzan erabakigarria izateko.

Beste alde batetik, piramidearen irudiarekin errazago ikus dezakegu hizkuntza izaki bizidun bat ere ez dela, izaki bizidun batzuk beste batzuekin izaten duten praktika-multzo bat baizik. Horrek berekin dakar uko egitea aniztasun linguistikoaren eta biologikoaren arteko baliokidetasun naifegi batzuei, zehatzak ez direlako eta iruzur egiten dutelako (ikus Bastardas 2004a, 2004b). Hizkuntzak ezin dira espezieekin eta populazioekin parekatu, eta arrazoia argi dago: hizkuntzak jardunak dira, eta espezieak, berriz, aktore-multzoak. Hizkuntzen bizitzaren eta heriotzaren metaforak dirauen arren, tropoa ez da zuzena: hizkuntza batek ezin du bizirik edo hilda egon, bizitzeko oinarrizkoak diren ezaugarriak falta baitzaizkio. Asko jota, eta Salikoko S. Mufweneren (2001: 16, 2008) metaforari jarraituz, hizkuntza bat birus batekin parekatu daiteke: ez dira haiek bakarrik bizitzeko gai, eta organismo bizidun batean sartzen direnean bakarrik aktibatzen dira. Zoriturrez, argi dago alderaketa horrek irudiarekin lotutako arazo bat duela: birusek ostalariari kalte egiten diote, eta hizkuntzek, berriz, ostalariaren parametro jakin batzuk aldatzen dituzte, baina ez diote kalterik egiten, alderantziz baizik: hizkuntzak funtsezkoak dira ostalariak bizirik iraun dezan, izaki sozial bat delako. Hizkuntzak, fenomeno soziokulturalak direnez, sortu eta birsortu egiten dira, baina ez dira bizi eta hiltzen. Nolanahi ere, eta baliokidetasun ekolinguistikoak bilatzen hasita, ziur aski *komunitate* (linguistikoa) eta *populazio* (biologikoa) kontzeptuen arteko elkarrekikotasuna aztertu beharko litzateke, testuinguru jakin batean dauden espezie bereko banakoei erreferentzia egiten dieten aldetik.

Kasu askotan partzialki edo gutxi gorabehera adierazten den arren, hizkuntza-gertakariaren dimentsio anitzeko ikuspegi honek aukera asko ditu soziolinguistikaren adiera zabalaren oinarri komunetako bat izateko. Baina diziplina guztien esparru komun hori ez da ideia honetan amaitzen. Beste ikuspegi batzuk ere soziolinguistikaren adiera zabalarekiko zeharkakoak dirudite, bai eta ekarpen kolektibo bat ere hizkuntzaren ulermen orokorrerako.

3. HETEROGENEOTASUN ETA DESBERDINTASUN EGITURATUAK: HIZKUNTZA-GERTAKARIA ULERTZEKO ESPARRUA

I

Soziolinguistikaren adar guztien abiapuntua hizkuntzaren heterogeneotasun egituratua da, eta ez dute hizkuntza sistema homogeneotzat hartzen, baizik eta bariazio sozialaren —eta hartatik eratorritako estratu soziala, etnikoa, generikoa eta geografikoa—, funtzionalaren eta historikoaren arabera egituratutako errealitate heterogeneotzat (Chambers 1995, Coulmas 2005, Labov 1994). Heterogeneotasun horren kontzientzia diziplina soziolinguistiko gehienek barne hartzen dituzten hiru nozio osagarriren oinarrian dago: lehenik, sistema linguistikoen ardatzari dagokionez, diziplina askok aldarrikatzen dute denak aldakorrek direla; bigarrenik, ezagutzei dagokienez, gehienek onartzen dute hiztun guztiek dutela askotariko komunikazio-gaitasun plurilektala edo eleaniztuna, barietate-errepertorio bat menderatzean oinarritutakoa; eta azkenik, erabilerei dagokienez, denek defendatzen dute hizkuntza-erabiltzaileek beren gaitasunak eta errepertorioak praktikan jartzen dituztela soziolinguistikoki askotarikoa den giro batean, etengabe aldatzen ari diren interakziozko testuinguru eta egoeratan egituratuta. Hizkuntza-gertakariaren heterogeneotasun hori, noski, ez dago ezerezean eutsita. Egitura sozialaren —adiera zabalean ulertuta: demografikoa, ekonomikoa eta politikoa, alegia— heterogeneotasuna da, bai eta bere korrelatu soziokulturalak ere, aniztasun soziolinguistikoaren oinarrian dagoena: laburbilduz, ez dira berberak ehiztari/biltzaileen gizarteek sortzen dituzten egituraketa soziolinguistikoaren formak eta gizarte industrialek edo informazioaren gizarte modernoak sortzen dituztenak. Banakoak errealitate horietan txertatu ahal izateko modu jakinek —gizarte-taldeak eta gizarte-klaseak, etniak eta gizarte-erakunde anitzak, bai eta horien itzulpenak ere, hala nola sare sozialak eta haien bizimoduak— bariazio (sozio)linguistikoa baldintzatzen dute, hein handi batean.

**Soziolinguistikak,
sortu zenetik,
interes handia
agertu du zenbait
nozio
linguistikoren
korrelatu sozial
bat zehazteko;
adibidez,
barietatea,
dialektoa,
soziolektoa eta
hizkuntza
nozioena.**

Batik bat ordena linguistikoa eta ordena sozial eta kulturala parekatzeko ahaleginei esker, soziolinguistikak bere beste ezaugarri orokortetako bat eskuratu du: desberdintasun egituratuaren eta haren boterearekiko erlazioaren kontzientzia, hain zuzen. Eta ezaugarri hori bi alor horietan lantzeaz gain, hizkuntzaren alorrera ere inportatu du (Aracil 1983, 1986; Bourdieu 1982; Heller 1999; Ninyoles 1972; Tollefson 1995; Williams 1999; Woolard 1985). Horrez gain, soziolinguistikaren korrante guztiek (horietako batzuetan besteetan baino nabarmenagoa da) badute beste ezaugarri bat: kontzientzia izatea edonolako baliabideak —linguistikoak, ekonomikoak, boterearekin lotutakoak eta abar— inoiz ez daudela berdintasunez banatuta komunitateetan, eta desberdintasun egituratu horrek ondorio nabariak dituela bai aurrez aurreko interakzioen alorrean bai hizkuntzen eta barietateen arteko erlazioetan. Alde horretatik, ideologia estandarizatzailen analisi kritikoak, ez-berdintasuneko eleantzasunarekiko mesfidantza, eta hezkuntza-metodo eleaniztunen aldeko apustuak, hein handi batean, soziolinguistikaren adiera zabal horren DNAREN ondorio dira.

Soziolinguistikaren korrante guztiek ahaleginak egiten dituzte hizkuntza-gertakariaren heterogeneotasun egituratua eta errealitate sozialaren eta soziokulturalaren heterogeneotasun egituratua erlazioatzeko. Korrante bakoitzak bere ikuspuntutik egiten du —mikrosoziolinguistikoa, meso-soziolinguistikoa edo makrosoziolinguistikoa— (ikus Bastardas 1996, Martínez de Luna 2011, Spolsky 2011), bere biltegi metodologikoa eta kontzeptuala erabiliz, hala nola demografia, ekonomia, sare sozialen azterketa eta solasaldiaren ikerketa barne hartzen dituen. Baina soziolinguistikaren adiera zabalak beste nozio batzuk ere mahaigaineratzea lortu du, hizkuntzaren eta gizartearen arteko erlazioak aztertzeke balio dutenak. Nozio horien artetik hiruk izan dute arrakasta nabarmena, haien operatibizazioaren inguruan adostasunik ez egoteak arrakasta hori lausotu badu ere: *komunitatea*, *erabilera-eremua* eta *erabilera-araua* nozioek.

Lehenbiziko nozioa *komunitatea* (linguistikoa) da. Soziolinguistikak, sortu zenetik —ikus Fishman (1972: 54)—, interes handia agertu du zenbait nozio linguistikoren korrelatu sozial bat zehazteko; adibidez, *barietatea*, *dialektoa*, *soziolektoa* eta *hizkuntza* nozioena. Horretarako, *komunitate* izena erabiltzeko joera izan du, esanahi honekin, gutxi gorabehera: behinik behin barietate bat eta barietate hori egokiro erabiltzeko arauak dituen kolektiboa. Zoritxarrez, ezaugarri linguistiko berak dituzten banakoak nolabaiteko gizarte-egituratan biltzen direnaren kontzientzia operatibizatzea uste baino zailagoa izan da, nahiz eta, Williamsek zioen moduan (1992), kontzeptu horrek soziolinguistikan izan-

dako garapena soziologian ere eragindako eztabaidak alde batera utzita egin den (ikus Boix eta Vila 1998, Swann et al. 2004). Hasteko, terminoak erlazonatutako nozio mordoak ekarri ditu berekin —*komunitate linguistiko, komunitate idiomatiko, hizketa-komunitate, diskurtso-komunitate, praktika-komunitate...*—, eta horrek erakusten du sintagma-buruaren esanahiak hainbat irakurketa izan ditzakeela. Bigarrenik, aipatutako izen gehienek ez dute adiera bakar bat eta hainbat modutan definitu ohi dira korrontearen eta autorearen arabera, eta horrek zaildu egiten du hitz horiek modu espezializatuan erabiltzea. Adostasun gabezia horrek eragina du *komunitate* nozioa enpirikoki erabiltzeko orduan, Fukudak (2010) Katalunian bizi den kolonia japoniarraren inguruko ikerketan erakutsi zuen bezala: haren arabera, oso zaila da kolektibo horretako partaideak definitzea hizketa-komunitateari begiratuta, ustezko partaideek ez dutelako berdin baloratzen beren erreperitorioa —hizketa-komunitatearen oinarritzko ezaugarria da hori, ikuspegi bariasionisten arabera— eta haien arteko interakzioa ez delako bereziki handia —hizketa-komunitatearen ezaugarria da hori, hipotesi etnografikoen arabera—. Beraz, soziolinguistika-ikerkuntzan *komunitate* terminotik eratorritako nozioak behar bezain zehatzak izatetik urrun daude oraindik.

Hala ere, proposamenen ugaritasunak —eta maiz, nahasketak— ez liguke *komunitate* nozioa bazter uztea behartu behar; izan ere, nahi badugu edo nahi ez badugu, esanahi teoriko osoa du *barietate* nozioaren korrelatu soziala den heinean eta, zalantzarik gabe, erabilera praktikoa handia du hainbat gizarteren eta komunitateren arteko alderaketak egiteko. *Komunikazio-gaitasun* edo *erreperitorio* ideiek ez dituzte kentzen *hizkuntza* edo *dialekto* nozioak, baizik eta errealtate konplexu batean artikulatzen dituzte. Beraz, gai izan beharko dugu *komunitate* ideia operatibizatzeke, banakoa aldi berean eta dinamikoki hainbat komunitatetako kide izan daitekeela oinarri hartuta —guretzat hori da, eta ez komunitaterik ez egotea Le Page eta Tabouret-Kellerek (1985) edo Mufwenek (2001, 2008) deskribatutako egoeratik atera beharko genukeen irakasgai nagusia—. Behin premisa horiek ezarrita, aurrera jarrai daiteke, betiere ulertzen bada komunitate horiek hainbat mailatan definitu daitezkeela (adibidez, makro mailan, komunitate linguistikoak; meso mailan, hizketa-komunitateak; eta mikro mailan, praktika-komunitateak), eta logikoki, elkar inbrikatzen direla. Gure ustez, nozio horiek aurrez azaldutako hizkuntza-gertakariaren lau dimentsioetan oinarritu beharko dira. Alde horretatik, itxaropentsua da Toni Mollàk (2002) egindako *hizkuntza-komunitate* nozioaren operatibizazioa, esplizituki konbinatuz kodeari, erabilera-arauei eta usteei lotutako alderdiak, eta inplizituki konbinatuz ezagutzei lotutakoak.

**Itxaropentsua da
Toni Mollàk
(2002) egindako
hizkuntza-
komunitate
nozioaren
operatibizazioa,
esplizituki
konbinatuz
kodeari,
erabilera-arauei
eta usteei
lotutako
alderdiak, eta
implizituki
konbinatuz
ezagutzei
lotutakoak.**

Erabilera-eremua da (*linguistic domain*, ingelesez) bigarren nozio garrantzitsua soziolinguistikan, aniztasunaren analisiari dagokionez. Fishmanek (1972) ezarritako termino hori maila makrosoziolinguistikoko tresna da, eta bat etorri beharko luke komunitate bakoitzak bere errealitate soziokulturalaz egiten duen segmentazio handi bakoitzarekin, ekintzaren partaideak, gaiak eta kokalekua oinarri hartuta. Horiek maila mikrosoziolinguistikoko hainbat unitate barne hartzen dituzte (komunikazio-egoerek enpirikoki egiazta daitezkeen hainbat interakzio barne hartzen dituzte). Kontzepzio honetan, erabilera-eremu bakoitzak hizkuntza-barietate jakin bat erabiltzea dakar: dela erregistro bat dela beste hizkuntza bat komunitate eleaniztunetan. Barietate hori barietate ez-markatu edo *a priori* eremuarekin bat datorren barietate bihurtzen da. Gumperzen (1972, 1982) eredu klasikoaren arabera, eremuak bereiztearen ondorioz, egoeraren araberako kode-aldaketak egiteko premia sortzen da hiztunek eremuz aldatzen duten bakoitzean. Eremu bakoitzarekin bat datorren barietatea erabiltzeko behar horrek ez du eragozten beste barietate markatuetara aldatzea, alderantziz baizik: hain zuzen ere, asoziazio horren ondorioz, hiztunek, elkarrizketa-alternantzia bat (metaforikoa edo markatua) baliatzen dutenean, beste eremu bateko konnotazio sozial eta pragmatikoak inportatzen dituzte interakzio jakin batera.¹⁰

Komunitate nozioaren kasuan bezalaxe, *erabilera-eremu* nozioaren arrakasta handiarekin batera haren eduki teorikoa pixkanaka lausotuz joan da —egia esan, aspalditik; ikus Aracil 1979—, behinik behin bi norabidetan. Batetik, antropologikoki, mikrosoziolinguistikoki eta/edo soziologikoki gatazkatsuak diren ikuspegietatik *erabilera-eremu* nozioa erasotu eta beraztertu egin da, berekin baitakar komunitate bateko kideak ados egotea eremuen eta barietateen arteko kongruentziari dagokionez (askotan, zaila da adostasun hori lekuan bertan identifikatzea). Horietako zenbait ikuspegik ukatu egiten dute *erabilera-eremu* terminoaren erabilgarritasuna; beste zenbaitek, komunitateko azpitalde bakoitzaren konfigurazio ideologikoekin lotzen dute (ikus Worthan 2010). Kataluniako soziolinguistika oso eszeptikoa izan da nozioaren erabilgarritasunarekiko, arrazoi teorioengatik baino gehiago, arrazoi enpirikoengatik. Izan ere, herrialde katalandunetan egindako hizkuntza-erabileren azterketek emaitza sistematiko bat izan dute: ezinezkoa da argi eta garbi hizkuntza jakin bat eskatzen duten erabilera-eremuak identifikatzea (ikus Vila 2005 eta Sorolla liburuki honetan bertan). Noski, horrek ez du eragozten *erabilera-eremu* nozioa katalanaren erregistroen azterketa funtzionaletarako erabiltzea (Payrató 1998). Bestetik, ikuspegi makroagoetan eta konparatzaileagoetan —adibidez, Spolskyren (2009) hizkuntza-kudeaketako eredu—, terminoa

maiz erabiltzen da soziokulturalki antzekoak diren egoera-multzoak izendatzeko, kontuan hartu gabe egoera horiek barietate jakin bat eskatzen duten ala ez. Funtsean, eta terminoaren hasierako kontzepzioari dagokionez, ikuspegi horrek ez ditu erabilera-eremuak definitzen barnetalde-irizpideekin eta eremuaren eta barietatearen arteko kongruentziaren arabera; dena den, horrela, taula bat egitea lortzen du, hizkuntza-erabileren aldetik antzekoak diren gizarteak alderatzeko aukera ematen duena.

Ironikoki, *erabilera-eremu* hitzaren jatorrizko esanahia asko aldatu bada ere, izen horrek nahiko irmo jarraitzen du bibliografia espezializatuan. Galdera da zenbateraino mantendu ahal duen kontzeptu batek bere erabilgarritasun analitikoa, bere interpretazioak hain eraso kontraesankorrak jasotzen baldin baditu. Terminoren jatorrizko funtsari leial izateko, komenigarria izango litzateke *erabilera-eremu* izena honi erreferentzia egiteko bakarrik erabiltzea: egoera soziokulturalen multzoa, hizkuntza-barietate jakin batzuk eskatzen dituen (baldin eta identifikatu badaitezke). Beste terminoren bat erabili beharko litzateke (adibidez *bizitza-eremu*) bestelako kasu hau izendatzeko: egoera sozialen multzoak, partaideen rola eta burututako jarduerak zehaztutakoak —bai eta, bigarren maila batean, beste zenbait baldintzak ere, hala nola espazio-denborazko kokapenak, komunikazio-kanalak eta gainerako elementu elkarreragileek—, hizkuntza-barietate jakin bat eskatzen ote duten kontuan hartu gabe. Posible da, erabilera-eremuen eta hainbat gizarte-eta komunitate-eremuren alderaketa sistematikoari esker, tipologia soziolinguistikoaren konfigurazioan aurrera egin ahal izatea.

Erabilera-eremu nozioak —arestian identifikatu ditugun bi adieretan— beste erronka bat du aurretik: bibliografian ez da horrela aurkezten, baina komunikabideen azterketa soziolinguistikoetatik ezinbestean ondorioztatzen da. Arazoa nahizko erraz adieraz daiteke galdera batekin: zenbateraino hartu behar dira komunikabideak erabilera-eremu —edo bizitza-eremu— propiotzat, hala nola familia-, lan- edo erlijio-eremu klasikoekin alderagarritzat? Erantzuna oso zaila da. Hasteko, badirudi zenbait komunikabidek (ahozko telefoniak, adibidez) beste kanal bat gehitzen dietela aurretik dauden eremuei, jatorrizko baldintzak gehiegi aldatu gabe; behinik behin, ez dirudi hala nola familia-, lan- eta hezkuntza-eremuan lehendik egindako hizkuntza-aukerak aldatzen dituztenik. Beste zenbait komunikabidek, berriz, aldaketa handiak eragiten dituzte aurretiko oreka ekolinguistikoan, eremu berriak eta aurreko barietateekiko oso desberdinak diren erregistroak sortzeraino. Aldaketa horien kasu paradigmaticoa ahozko hizkuntzak idazketara murriztea da (Aracil 2004, Mühlhäusler 1996); hortik dator Europako hainbat hizkuntzaren

**Erabilera-eremu
nozioaren
arrakasta
handiarekin
batera haren
eduki teorikoa
pixkanaka
lausotuz joan da.**

egungo banaketa, bai eta barietate kodifikatuak sortzeko beharra ere, inprintaren asmakuntzarekin batera “Europako lehen iraultza ekolin-
guistiko handia” (Baggioni 1997) eragin zuen prozesua. Horrelako
kasuetan, eta hala nola prentsaren, irratiaeren, mezularitza elektronikoaren
eta Interneteko sare sozialen kasuan bezalaxe, pentsa daiteke komunikabide
berriak ez duela soilik aurreko eremuen errealtatea zehazten, baizik eta
erabilera-eremu berriak eratzen dituela, aurretik zeudenekiko autonomoak,
bere baldintza soziolinguistiko eta teknologiko propioekin.

Baina eremuen konstelazioetan gertatutako oinarri teknologikoko
aldaketak oraindik eta haratago doaz: telebistaren kasuan, batik bat,
dagoeneko ezin da hitz egin aurretiko erreperitorioari erabilera-eremu
propioak gehitzeari buruz bakarrik. Hain zuzen, telebistak bere erabi-
lera-eremu propioak sortzen ditu, bere jokabide-arau linguistiko pro-
pioekin; beste askoren artean, lehiaketak, *talk show* delakoak, aisialdi-
saioak, albistegiak, umore-saioak eta dokumentalak. Baina telebista
askoz ere urrutirago doa; izan ere, esperientzia sozial osoa islatzen
duen heinean, telebista bizitzaren beraren eremu-konstelazioaren bi-
koizketa da. Are gehiago: telebistak eredu adierazten du banako ba-
koitzak zenbat eremutara duen sarbidea, gutxienez hiru aldetatik:
batetik, gizartearen beraren eremu guztiak aurkezten dizkio; bigarrenik,
oraingo eta iraganeko beste gizarte batzuetako eremu anitzetara sarbidea
ematen dio; eta hirugarrenik, fikziozko errealtate mordoa eskaintzen
dizkio, gizatiarrak nahiz ez-gizatiarrak. Telebistari esker, ikusleek
egunero eskura dituzte eremu horiek, hiztun gehienek eguneroko
bizitzan ez daudenak, dela distantzia sozialagatik (justiziaren mundua,
poliziarena, baztertutakoena, finantzetako eliteena...), dela geografiko-
agatik (eguneroko bizitza New Yorken, Kalifornian, Shanghaien...),
dela denborazkoagatik (hala nola historiaurreko, erromatarren aurreko
garaiko, Erdi Aroko eta Lehen Mundu Gerrako biztanleen abenturak),
dela fikziozko gizarteak direlako (xxv. mendeko bizimodua, *Star Wars*eko
tripulatzaileen gorabeherak, Epi eta Blasen abenturak, *teletubbi*enak
edo Akirarenak). Nolabait adieraztearen, har dezagun eremu-konstelazioa
solairu bakarreko etxebizitzatzat (hiztun bakoitzarena), eta bizitza-
eremuak (hiztunarenak), etxebizitza horretako gelatzat. Literaturak eta
posta elektronikoak gela berri bat gehitzen diote lehendik zegoen solai-
ruari; telebistak, berriz, bigarren solairu bat eraikitzen du, eta horretan,
lehenbizi solairuko gelak kopiatzeaz gain, beste hainbat gehitzen ditu.
Alde horretatik, katalanaren esperientzia paradigmaticoa da: telebista
iritsi aurretik, katalandunek gaztelaniaren ezagutza partziala bakarrik
izan zezaketen, batez ere eskolaren, literaturaren eta gaztelaniadunekin

izandako noizbehinkako harremanen bidez ikasitakoan oinarritutakoa. Baina, telebista iritsi zenetik, katalandunek, etxeko egongelan senide gaztelaniadun bat baino gehiago eduki dute: izan ere, ezagutzen duten unibertsoa gaztelaniara bikoiztuta dute, eta horrek sarbidea ematen die hizkuntza horretako barietate- eta erregistro-sorta guztira. Hori dela eta, lasaitasun osoz eta konturatu ere egin gabe ohitu daitezke epaileen erregistro formalera, baztertuen argotera, intimitate sexualaren hizkuntzara eta parlamentarien diskurtsoetara, besteak beste. Eta hori egungo belaunaldien gaztelania-mailan nabaritzen da (historiako onena), bai eta hizkuntza horrek erregistro guztietan —pribatuenetan barne— izan duen eraginean, katalanaren gainetik jartzera iritsi baita. Alde horretatik, hurbileko eta kanpoko esperientziaren erdian jartzen da gaztelania, Aracilek (1983) termino horri eman zion esanahiarekin; izan ere, ikuslearen errealtatea berriz aurkezten du eta fikzioan irudikatzen du telebistak, burura etortzen zaizkigun ia bizitza-eremu guztietan. Hori dela eta, ikusle katalandunak, Espainiako telebista-kate bati begiratzuz gero, beren hiria elebakar gaztelaniaduna izango balitz bezala ikustera hel daitezke, eta azkenean, sinesgarria irudituko zaie. Gainera, irudikapen elebakar hori bakarrik jasoko dute lurralde katalandunetatik kanpo dauden ikusleek, eta azkenean, ziur aski, ikusle horiek ez dira gai izango lurralde horietako errealtate linguistikoa ulertzeko eta onartu egingo dute katalana nazionalista katalanen asmakizun bat denaren falazia.

Diziplina soziolinguistiko gehienen hirugarren elementua *erabilera-arauak* nozioa da, honela ulertuta: hiztunek hizketa-komunitate batean sozializatzeko prozesuan eskuratzen dituzten erregulazioak dira (hasiera batean inplizituak), eta interakzio-testuinguru anitzetan egokiro jokatzeko moduak eta besteen jokabidearekiko itxaropenak iradokitzen dituzte. Beraz, erabilera-arauak jokabide-gidak dira, baina baita besteen jokabidea interpretatzeko gidak ere (ikus aurkezpen zabal bat hemen: Boix eta Vila 1998; 4. kap.). *Erabilera-arau* kontzeptua funtsezkoa da soziolinguistika antropologikoan eta makrosoziolinguistikian oro har, bai orientazio soziologikoan edo demolinguistikokoan bai korrante bariasionistetan. Azken horretan, gutxiago aztertu bada ere, eta Kauhanenek (2006) gogorarazten duen bezala, hizketa-komunitatearen definizioaren erdi-erdian dago:

“The speech community is not defined by any marked agreement in the use of language elements, so much as by *participation in a set of shared norms*; these norms may be observed in overt types of evaluative behavior, and by the uniformity of abstract patterns of variation which are invariant in respect to particular levels of usage” (Labov 1972: 120–121, letra etzanak guk jarri ditugu).

**Erabilera-arau
kontzeptua
funtsezkoa da
soziolinguistika
antropologikoan
eta
makrosoziolin-
guistikan oro
har, bai
orientazio
soziologikoan
edo
demolinguistikoan
bai korrante
bariazionistetan.**

Erabilera-arauak nozioa bereziki hedatuta egon da Kataluniako soziolinguistikan (Boix 1993, Pujolar 1997, Vila 1996, Woolard 1989). Hori, ziur aski, eremuen arabera hizkuntza-aukeraketaren eta -txandakatzearen praktikak aztertzeke zailtasunaren aurrean izandako erreakzio naturala izan da. Izan ere, erabilera-arauen balioa, hiztunek ezagutzen, aplikatzen eta, behar izanez gero, urratzen dituzten eskubideen eta betebeharren pakete gisa ulertuta, eremuen existentzia baino lehenagoko kontzeptu bat da, eta esan genezake soziolinguistikaren funtsa dela: Katalunian egindako ikerketak erakusten duenez, komunitate batek ez du hizkuntza eremutan banatu beharrik, baina erabilera-arauak egotea, nahiz eta komunitatearen zati handi batek haien aurka egin, nahitaezkoa da heterogeneotasun linguistiko egituratua ulertzeke.

4. HIZKUNTZA-GERTAKARIAREN IKUSPEGI DINAMIKOA ETA TESTUINGURUAN KOKATUTAKOA

Arestian azaldutako hizkuntza-gertakariaren dimentsio anitzeko ikuspegiak ez du eragozten hizkuntzaren azterketa lehen adierazitako erpinetako batera bideratzea: ez da orakulu bat izan behar aurreikusteko aurrerantzean ere egongo direla batik bat sistemara bideratutako ikerketa linguistikoak, jabetze-prozesuan eta ezagutzan arreta jartzen duten ikerketak, eta ideologietan eta jokabideetan enfasia jartzen duten ikertzaileak. Horretara bultzatzen dute bai tradizioak bai unibertsitate-egiturak. Dena den, aditzera emandako ikuspegiak, berez bereizezinak diren fenomenoen arteko elkartasun saihestezina irudikatzen duen heinean, abantaila bat du: fenomeno linguistikoak ulertzeke hainbat ondorio onuragarri dakartza berekin.

Ikuspegi horrek ikerketa soziolinguistikoari berari ekarri dizkio onura gehien. Maiz argudiatu denaren kontra —Araciletik hasi (1983) eta Mesthrie 2010 arte—, soziolinguistikaren adiera zabala ez da hizkuntza-erabileraz bakarrik arduratzen. Izan ere, hori baieztatuko bagenu, soziolinguistikaren ikerketa-esparrutik kanpo utziko genituzke bai sisteman bai ideologietan arreta jartzen duten hainbat eta hainbat ikerketa-tradizio; esate baterako, hizkuntza-kodifikazioko eta estandarizazioko prozesuen azterketa. Gainera, horren ondorioz, hainbat obra klasiko esparrutik kanpo utzi beharko lirateke; adibidez, Einar Haugenen (1966) *Language conflict and language planning: The case of modern Norwegian* eta Uriel Weinreichen (1953) *Language contact*. Halaber, dudagarria da ikerketa bariazionista egokiro txertatuko litzatekeen erabilerari bakarrik erreparatzen dion soziolinguistika batean, kontuan hartuta haren helburu nagusia, azken finean, hiztunen gaitasun plurilektalaren funtzionamendua

ikertzea dela. Sistemetan, ideologietan eta hizkuntza-gaitasunetan interesik ez duen soziolinguistika anputatutako soziolinguistika da.

Hizkuntzaren sistema bakarrik aztertzearen kasuan bezalaxe, erabilera bakarrik ikertuz ere ezin dira ulertu hizkuntza eta soziolinguistika osotasunean. Oso bestelako kontua da adieraztea hizkuntzaren kontzeptio soziolinguistikoak berekin dakarrela ekintza soziala hizkuntzatik ezin askatu izatea, eta beraz, hizkuntza-gertakariari buruzko edozein ikerketak kontuan hartu behar duela hizkuntzaren (eta ondorioz, edozein sistemaren) dinamikotasuna. Hizkuntza, hein handi batean, praktika sozialen multzo bat denaren ideia nozio nagusitzat izateak badu ondorio onuragarri bat: ikuspegi horrek berekin dakar tentazio indibidualistak alde batera uztea ikerketa linguistikoan. Saussurek ohartarazi zuen hizkuntza fenomeno soziala zela, baina *languean* zentratzea erabaki zuen, eta ikuspegi indibidual batetik ikertzeko paradoxa saussurianoan erori zen (Chambers 1995); soziolinguistikak, definizioz, fenomeno interaktibo eta sozial gisa aztertzen du hizkuntza, eta ez fenomeno indibiduala bakarrik izango balitz bezala. Esan gabe doa, gainerako giza eta gizarte-zientzietan bezalaxe, korronte soziolinguistiko guztiek ez dutela modu berean azaltzen askatasun indibidualaren eta determinazio sozialaren arteko binomioa. Horren adierazle da ikuspuntu hauen arteko alde izugarria: Labovek (1994) ikuspuntu bariasionista zuen eta banakoen jokabideak aztertzen zituen aldaketa sozialeko prozesuen baitan; Coulmasek (2005), berriz, "hizkuntza-aukeraketen zientzia" gisa definitzen du soziolinguistika; eta Mufwenek (2001, 2008) idiolektuetan jartzen du aldaketa linguistikoaren bektorea. Baina kasu horietan guztietan funtsezko elementu bat dago: hizkuntza-gertakariari ez zaio heltzen banako bereizi baten produktua izango balitz bezala, baizik eta gizarte-harreman batzuen arabera, aukeraketa guztien artetik pertsonalenak ere ez baitira gertatzen hutsean, gizartean baizik. Ikuspegi horretan, hizkuntza-errepertorio desberdinak dituzten pertsonen arteko konbergentzian oinarritutako jardueratzat hartzen da jarduera linguistikoa (Giles eta Coupland 1991). Gizarte-psikologian egindako ikerketak erakusten duenez, baina baita ikerketa makrosoziolinguistikoak eta etnografikoak ere (alde horretatik, ikusi Vilaren eta Galindoren berrikusketa liburuki honetan bertan), konbergentzia gehien egon daitekeen egoeretan distantzia linguistikoa mantentzea —adibidez, hizketaldi elebidun batean, gutxienez hizkuntza bat bera dakiten pertsonen artean— gehiago da salbuespena araua baino. Ekintza komunikatiboa, batik bat, baliabide desberdinak dituzten banakoen arteko sintonizazio-operazio bat da, eta sintonizazio hori posible denean haren faltaren adierazgarriak

Hizkuntza-gertakariari ez zazio heltzen banako bereizi baten produktua izango balitz bezala, baizik eta gizarte-harreman batzuen arabera, aukeraketa guztien artetik pertsonalenak ere ez baitira gertatzen hutsean, gizartean baizik.

Oso zaila dirudi paradigma teoriko eta metodologiko bateratu bat agertzea, ikerketa-norabide horiek guztiak diziplina bakar batean biltzea lortuko duena.

badaude —hau da, dibergentziarenak—, irakurketa soziolinguistikoak dituzten seinaleztat hartzen dira (Le Page eta Tabouret-Keller 1985).

Azkenik, hizkuntza batez ere ekintza soziala bada, eta ekintza hori heterogeneotasun eta desberdintasun egituratuak testuinguru batean gertatzen bada, esan beharrik ere ez dago hizkuntza-gertakaria ulertzeko nahitaezkoa dela testuinguruan kokatzea. Alde horretatik, gehiegizkoa dirudi erabilera-eremua erabilerarekin eta sistemarekin parekatu eta hizkuntza-gertakariaren zatitza hartzea, Silversteinek (1985) egiten duen moduan. Hala ere, oro har onartuta dago hizkuntzaren kontzeptzio soziolinguistikoaren oinarrian hizkuntza-gertakaria bere produkziozko testuinguru sozialean txertatzeko premia dagoela, eta hori nahitaezko baldintza dela hura behar bezala ulertzeko, ikuspegi mikrosoziolinguistikotatik nahiz makrosozialetatik abiatuta.¹¹

5. LABURPENA ETA ONDORIOAK

Ikerketa soziolinguistikoak ikuspegi makroenetatik mikroenetara egiten dira, eta giza eta gizarte-zientzien arloko askotariko tradizioetan txertatzen dira. Beraz, ikerketa horien egungo garapen-egoeran, oso zaila dirudi paradigma teoriko eta metodologiko bateratu bat agertzea, ikerketa-norabide horiek guztiak diziplina bakar batean biltzea lortuko duena. Dena den, esparru teoriko bateraturik ez dagoen arren, hizkuntza gizartean ikertzen duten diziplina guztien zenbait ezaugarri identifikatu daitezke. Artikulu honetan horietako batzuk aditzera ematen saiatu gara. Zehatz-mehatz, eta bakoitza zer diziplina jakini dagokion alde batera utzita, ikerketa soziolinguistikoak ezaugarri hauek ditu:

- Hizkuntza-gertakaria dimentsio anitzeko errealitatetzat hartzen da, eta horretan, hizkuntzaren sistema ez ezik, erabilera, ideologiak eta gaitasunak ere kontuan hartzen dira.
- Arreta handia jartzen da ekintza eta aldaketa ulertzeko.
- Banakoaren eta komunitatearen arteko dialektikatik abiatuta aztertzen da errealitate linguistikoa.
- Premisa jakin batetik abiatzen da: heterogeneotasun eta desberdintasun egituratuak daude ordena sozialean, soziokulturean eta linguistikoan.
- Interakziozko testuinguru batekin hertsiki lotuta dagoen errealitatetzat jotzen da hizkuntza-gertakaria.

Azalduetako ikuspegia zirriborro orokor bat da, eta orientazio soziolinguistikoa duten diziplina guztientzat balio dezake. ●

OHARRAK

1. Jatorrizko testua argitaratua: Vila i Moreno, F. Xavier 2012: “Algunes bases per a la recerca sociolingüística en sentit ampli” in Vila i Moreno, F. Xavier (ed.): *Posar-hi la base: usos i aprenentatges lingüístics en el domini català*. Institut d’Estudis Catalans. Xarxa CRUS-CAT. Editorial: IEC. Itzulpena: Maialen Garagarza (BAKUN, S.L.).
2. Eskerrak eman nahi dizkiet Albert Bastardasi eta Llorenç Comajoani testu honen aurreko bertsioetan egindako iruzkin eta ekarpenengatik. Halaber, eskerrak eman nahi dizkiet Ricard Guerrerori eta Xavier Vila i Viñasi, hizkuntzen eta birusen arteko alderaketa egitean emandako orientabide bikainengatik. Esan gabe doa testuan egon daitekeen edozein akatsen arduradun bakarria lerro hauek idazten ari dena dela.
3. Alde horretatik, 2004. urteko *Caplletra* aldizkariaren 37. aleko monografia interesgarrian oso argi ikus daiteke zer-nolako dispertsio paradigmaticoa duen soziolinguistikak (ez Katalunian bakarrik). Nabaria da ikuspegiak aukeratzeko garaian izandako irizpide murriztailea, baina, hala eta guztiz ere, liburuki horretan askotariko autoreak daude jasota: soziolinguistika soziologia sistemiko guztiz antiindibidualista batean oinarritzen dutenak, hala nola Conills eta Salomé (2004); ikuspegi psikosoziológicoetatik abiatuta egiten saiatzen direnak, adibidez Querol (2004); eta diskurtsoaren analisisira bideratzen dutenak, Calaforra (2004) esate baterako. Gainera, Lamuelaren (2004) erro glotopolitikoko azterketak eta Masen eta Montoyaren (2004) ikerkuntza bariazionistaren berrikusketa ere jasota daude. Multzoak berak argi erakusten ditu bai diziplinartekotasunaren interesa bai oinarri hain heterogeneoetan diziplina bateratu bat eraikitzeke zailtasun objektiboak.
4. Hortik kanpo, joera murriztaileak soziolinguistika katalanean bakarrik izan du nola-baiteko arrakasta; izan ere, zenbait autorek —Querolek (2004), adibidez— proposatutako diziplinak, beste oinarritzko ekarpen batzuen artean, bariazionismoa alde batera utzi nahi duela dirudi.
5. Horrek ondorio interesgarri bat du: hizkuntzalaritza ikuspegi ez-sozialak hartzen tematzen bada —hau da, azterketetan dimentsio sozialak barne hartzen ez baditu—, zailtasun gaindiezinak topatuko ditu hizkuntza bat zer den eta zer ez den definitzeko. Dilemaren konponbidea ez da pentsatzea hizkuntzalaritzak ez duela zeresanik, baizik eta onartzea hizkuntzaren zientziak, hizkuntzaren sistemaz gain, beste gauza asko aztertzen dituela.
6. Denok dakigu zer konnotazio politiko dituen kontu horrek: hebreera klasikoaren eta garaikidearen arteko jarraitutasuna legitimitate-elementu osagarri bat da israeliten eta egungo israeldarren arteko jarraitutasun nazionalaren aldarrikapenatarako, horrek berekin dakarren guztiarekin.
7. Adiera zabalean ulertuta; hau da, iritziak, jarrerak, imajinarioak, usteak, pentsamoldeak eta abar barne hartuta. Ikus van Dijk 1998 eta Spolsky 2009.
8. Ez dira nahastu behar ezagutzak eta gaitasun gramatikala, ezta erabilerak eta komunikazio-gaitasuna ere. Proposatzen dudana erudian, ezagutzek komunikazio-gaitasun guztiak barne hartzen dituzte; erabilerak, aitzitik, praktikak dira, behatu daitezkeen portaerak.
9. Hizkuntzaren piramide honen atzean irakurgai asko eta asko daude, eta beldurra ematen dit garrantzitsuen bat ahazteak. Eragin zuzena izan duten erreferentzien artean hizkuntza-politikari buruzko lan asko daude. Diziplina horretan, oso bilakaera garrantzitsua gertatu da: lehenbiziko eredueta corpusa eta estatusa kontrajartzen zituzten (Haugen 1987); ondoren, eredu konplexuagoak azaldu ziren, ikaskuntzaren plangintza barne hartzen zutenak (Cooper 1989); eta, aurrerago, ideologiak eta irudikapenak barne hartzen zituztenak (Spolsky 2004; historia jakiteko, ikus Ricento 2006 edo Montoya 2006). Gainera, ideologiaren, praktika linguistikoen eta hizkuntzen corpusen inguruko irakurgai asko daude; garrantzitsuenen artean daude, besteak beste, Schieffelin, Woolard eta Kroskry (1998) eta Heller (1999). Taldeen arteko ukipen-prozesuetan jarrerak duten garrantziari buruzko irakurgaiak ere badaude: Clément, Noels eta Deneault 2001, esate baterako. Hala ere, duela gutxi —ia-ia lerro hauek idazteaz bukatzen ari garen unean— konturatu

gara bat datozela eredu hau eta Silversteinen (1985) proposamenaren zati bat. Bestalde, Nicolásen (1998) proposamenek ere lagundu dute lau dimentsio horiek piramide moduan adierazten. Ereduaren lehen bertsioa hemen argitaratu zen: Vila (2005).

10. Esan beharra dago, nahiz eta kode-aldaketen ikerkuntzak erakutsi duen mekanismo horrek hasierako dikotomia hori erraz gainditzen duela, aurkakotasunak bere balio heuristikoaren zati handi bat mantentzen du erabilera-eremuak argi eta garbi bereizita dituzten gizarteentzat (ikus Boix i Vila 1998, 6. kap., edo Winford 2003).

11. Hizkuntzaren kontzeptzio sozialari esker, hizkuntzen erregulazioarekin lotutako zenbait oztupo praktiko eta teoriko gainditu daitezke. Hizkuntza fenomeno elkarreragilea eta soziala bada, azukre-koskor bat bezala desegiten da erregulazioa huts sozialean isolatutako banakoen eskubideen noziotik abiatuta ulertzeko ideia. Hizkuntza interakzioa bada, X hizkuntza erabiltzeko eskubideak ezinbestean berekin dakar eskubide hori baliatu ahal izateko baldintza objektibo batzuk sortzea. Ez dago eskubide kolektiboetara jo beharrik: nahikoa da eskubide bat baliatzeko baldintza objektiboek hitz egitea.

BIBLIOGRAFIA

- Ammon, U., Dittmar, N. eta Mattheier, K.L. (ed.) (1987). *Sociolinguistics - Soziolinguistik. An International Handbook of the Science of Language and Society. Ein Internationales Handbuch zur Wissenschaft von Sprache und Gesellschaft*. vol. I. Berlin; New York: Walter de Gruyter.
- Aracil, L.I.V. (1979). "Educació i sociolingüística", *Treballs de Sociolingüística*, 2, 33-86. <http://www.raco.cat/index.php/TSC/article/view/47717/59286>.
- Aracil, L.I.V. (1983a). *Dir la realitat*. Barcelona: Edicions Països Catalans.
- Aracil, L.I.V. (1983). "Sobre la situació minoritària", in Aracil, L.I.V. *Dir la realitat*. Bartzelona: Edicions Països Catalans, or. 171-206.
- Aracil, L.I.V. (1986). *Papers de sociolingüística* (2a ed. revisada). Bartzelona: La Magrana.
- Aracil, L.I.V. (2004). *Do Latim às Línguas Nacionais: Introdução à História Social das Línguas Europeias*. Santiago de Compostela: Associação de Amizade Galiza-Portugal.
- Baggioni, D. (1997). *Langues et nations en Europe*. Paris: Payot.
- Bastardas i Boada, A. (1996). *Ecologia de les llengües. Medi, contactes i dinàmiques sociolingüístiques*. Bartzelona: Proa.
- Bastardas i Boada, A. (2003). "Ecodinámica sociolingüística: comparaciones y analogías entre la diversidad lingüística y la diversidad biológica", *Revista de Llengua i Dret*, 39, pàg. 119-145.
- Bastardas i Boada, A. (2004a). "Diversitat biològica i diversitat lingüística: algunes pistes transdisciplinàries per a una socioecologia de les llengües", in: Bastardas i Boada, A. *Diversitats. Llengües, espècies i ecologies*. Bartzelona: Empúries, 13-53.
- Bastardas i Boada, A. (2004b). "La metàfora ecològica: possibilitats i límits per a l'aproximació sociolingüística", en: Pradilla Cardona, M.À. (ed.). *Calidoscopi lingüístic. Un debat entorn de les llengües de l'Estat*. Bartzelona: Octaedro, 13-24.

- Bastardas i Boada, A. (2007). *Les polítiques de la llengua i la identitat a l'era "glocal"*. Bartzelona: Generalitat de Catalunya, Departament d'Interior, Relacions Institucionals i Participació, Institut d'Estudis Autònoms.
- Berruto, G. (2003). *Fondamenti di sociolinguistica*. Roma-Bari: Laterza.
- Blas Arroyo, J.L. (2005). *Sociolingüística del español. Desarrollo y perspectivas en el estudio de la lengua española en contexto social*. Madrid: Cátedra.
- Blommaert, J. (1999). *Language ideological debates*. Berlin - New York: Mouton de Gruyter.
- Blommaert, J., Collins, J., Heller, M., Rampton, B., Slembrouck, S. i Verschueren, J. (2003). "Introduction to Special Issue: "Ethnography, discourse and hegemony"", *Pragmatics*, 13, 1, 1-10.
- Boixi Fuster, E. i Vila i Moreno, F.X. (1998). *Sociolingüística de la llengua catalana*. Bartzelona: Ariel.
- Bourdieu, P. (1982). *Ce que parler veut dire. L'économie des échanges linguistiques*. Poitiers: Fayard.
- Calaforra, G. (2004). "Ús lingüístic, legitimitat i discurs: consideracions weberianes", *Caplletra*, 37, 197-216.
- Calvet, L.-J. (1999). *Pour une écologie des langues du monde*. Paris: Plon.
- Canale, M., i Swain, M. (1980). "Theoretical Bases of Communicative Approaches to Second Language Teaching and Testing", *Applied Linguistics*, 1, 1, 1-47.
- Castellanos i Llorens, C. (2000). *Llengua, dialectes i estandardització*. Bartzelona: Octaedro.
- Chambers, J.K. (1995). *Sociolinguistic Theory. Linguistic Variation and its Social Significance*. Cambridge, MA: Blackwell.
- Chambers, J.K. (1995). *Sociolinguistic Theory. Linguistic Variation and its Social Significance*. Cambridge, MA: Blackwell.
- Clément, R.; Kimberly, N. i Deneault, B. (2001). "Interethnic contact, identity and psychological adjustment: the mediating and moderating roles of communication", *Journal of Social Issues*, 57, 3, 559-577.
- Conill, J.J. i Salomé, A. (2004). "Elements per a una sociologia sistèmica del llenguatge", *Caplletra*, 37, 155-196.
- Consell d'Europa (2002). *Marc europeu comú de referència per a les llengües: aprendre, ensenyar, avaluar*: Ministeri d'Educació, Joventut i Esports del Govern d'Andorra; Generalitat de Catalunya; Govern de les Illes Balears. Accessible a: http://www20.gencat.cat/portal/site/Llengcat/menuitem.b318de7236aed0e7a129d410b0c0e1a0/?vgnextoid=7b76bd051ca62110VgnVCM10000_08d0c1e0aRCRD&vgnnextchannel=7b76bd051ca6211_0VgnVCM1000008d0c1e0aRCRD&vgnnextfmt=default.

- Consello d'a Fabla Aragonesa (1981). "O zenso luenguístico", *Fuellas d'informazi3n d'o Consello d'a Fabla Aragonesa*, 23, 1-2.
- Cooper, R.L. (1989). *Language Planning and Social Change*. Cambridge: Cambridge University Press. Traducci3n al castell3: (1997). *La planificaci3n lingüística y el cambio social*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Coulmas, F. (2005). *Sociolinguistics. The study of speakers' choices*. Cambridge; New York: Cambridge University Press.
- Coupland, N., Sarangi, S., i Candlin, C.N. (ed.) (2001). *Sociolinguistics and Social Theory*. Harlow, England: Longman.
- de Rossell3 i Peralta, C. (2010). "Aprendre a triar. L'adquisici3 de les normes d'ús i alternança de codis en l'educaci3 infantil" (Argitaratu gabeko doktore-tesia). Departament de Filologia Catalana, Universitat de Barcelona.
- de Swaan, A. (2001). *Words of the world. The global language system*. Malden, Mass: Polity Press.
- Dewaele, J.M., Housen, A. i Li Wei. (2003). *Bilingualism: Beyond Basic Principles*. Clevedon: Multilingual Matters.
- Figueroa, E. (1994). *Sociolinguistic metatheory*. Oxford; New York: Pergamon; Elsevier.
- Fishman, J.A. (1972). *The Sociology of Language: An Interdisciplinary Social Science Approach to Language in Society*. Rowley, Mass.: Newbury House Publishers.
- Fishman, J.A. (1999). "The new linguistic order", *Foreign Policy*, 113, winter 1998-1999. Traducci3 catalana: (2001). "El nou ordre lingüístic internacional", *Digit HVM. Revista Digital d'Humanitats*. http://www.uoc.edu/humfil/articulos/cat/fishman/fishman_imp.html.
- Fishman, J.A. (2001). *Llengua i identitat*. Alzira: Bromera.
- Fishman, J.A. (2006). *Do not leave your language alone. The hidden status agendas behind corpus planning in language policy*. Mahwah, New Jersey: Routledge.
- Fukuda, M. (2009). "Els japonesos a Catalunya i la llengua catalana: comunitat, llengües i ideologies" (tesi doctoral inèdita), Departament de Filologia Catalana, Universitat de Barcelona.
- Galindo, M. (2006). "Les llengües a l'hora del pati. Usos lingüístics en les converses dels infants de primària a Catalunya" (tesi doctoral inèdita). Departament de Filologia Catalana, Universitat de Barcelona.
- Giles, H. i Coupland, N. (1991). *Language, contexts and consequences*. Buckingham, UK: Open University Press.
- Harrison, K.D. (2007). *When languages die. The extinction of the world's languages and the erosion of human knowledge*. Oxford University Press: Oxford.

- Haugen, E. (1966). *Language Conflict and Language Planning: The Case of Modern Norwegian*. Cambridge, Mass.: Harvard University Press.
- Haugen, E. (1987). "Language Planning", en: Ammon, U., Dittmar, N. i Mattheier K.J. *Sociolinguistics - Soziolinguistik*, editat per vol. I, 626-637. Berlin: Mouton De Gruyter.
- Heller, M. (1999). *Linguistic Minorities and Modernity. A Sociolinguistic Ethnography*. London, New York: Longman.
- Heller, M. (2002). *Éléments d'une sociolinguistique critique*. Paris: Éditions Didier.
- Hymes, D. (1972). "On communicative competence", in: Pride, J.B. i Holmes, J. (ed.). *Sociolinguistics*. Harmondsworth: Penguin, pàg. 269-285.
- Junyent i Figueras, C. (1998). *Contra la planificació*. Bartzelona: Empúries.
- Kauhanen, I. (2006). "Norms and Sociolinguistic Description", *SKY Journal of Linguistics*, 19, 34-46.
- Kremnitz, G. (2006). "Català, valencià, balear: respostes científiques a qüestions polítiques? Reflexions sobre la unitat i la diversitat de l'espai lingüístic català", en: Vallverdú, F. (ed.). Cap a on va la sociolingüística? II Jornada de l'Associació d'Amics del Professor Antoni M. Badia i Margarit (Barcelona, 20 d'octubre de 2005). Barcelona: Institut d'Estudis Catalans, 63-76.
- Labov, W. (1994). *Principles of Linguistic Change. Internal Factors* (vol. 1). Oxford: Basil Blackwell.
- Lamuela, X. (1994). *Estandardització i establiment de les llengües*. Bartzelona: Ed. 62.
- Lamuela, X. (2004). "Instal·lació o establiment? Encara sobre els objectius de la promoció lingüística", *Caplletra*, 37, 217-244.
- Le Page, R.B., i Tabouret-Keller, A. (1985). *Acts of Identity. Creole-based Approaches to Languages and Ethnicity*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Li Wei. (1994). *Three Generations, Two Languages, One Family. Language Choice and Language Shift in a Chinese Community in Britain*. Clevedon: Multilingual Matters.
- Martínez de Luna, I. (2011). "Vitòria-Gasteiz 1981-2006: monolingüisme, diglòssia o bilingüisme?", en Montoya Abat, B., Vila i Moreno, F.X. i Gomàriz i Auró, E. (ed.). *La revernacularització del valencià a la ciutat d'Alacant. Actes de la Jornada d'estudi i debat "Llengua, educació i revernacularització: el valencià a la ciutat d'Alacant"*, Alacant, 9 i 10 de març de 2007. Barcelona: Institut d'Estudis Catalans, 23-34.
- Mas i Miralles, A. i Montoya Abat, B. (2004). "La sociolingüística de la variació als Països Catalans: estat de la qüestió", *Caplletra*, 37, 245-268.

- Mesthrie, R. (ed.) (2001). *Concise encyclopedia of sociolinguistics*. Amsterdam; New York; Oxford; Shannon; Singapore; Tokyo: Elsevier.
- Mesthrie, Rajend (2010). "6. Sociolinguistics and sociology of language", en: Spolsky, B. i Hult F.M. *The handbook of educational linguistics*. Oxford: Blackwell, 66-82.
- Milroy, L. i Gordon, M. (2003). *Sociolinguistics. Method and interpretation*. Oxford: Blackwell Publishing.
- Mollà, T. (2002). *Manual de sociolingüística*. Alzira: Bromera.
- Montoya, B. (2006). *Normalització i estandardització*. València: Institut Interuniversitari de Filologia Valenciana: Bromera.
- Mufwene, S.S. (2001). *The ecology of language evolution*. Cambridge, UK: Cambridge University Press.
- Mufwene, S.S. (2008). *Language evolution. Contact, competition and change*. London; New York: Continuum.
- Mühlhäuser, P. (1996). *Linguistic Ecology. Language Change and Linguistic Imperialism in the Pacific Region*. London: Routledge
- Myers-Scotton, C. (1993). *Social Motivations for Codeswitching. Evidence from Africa*. Oxford: Clarendon Press - Oxford.
- Myers-Scotton, C. (2006). *Multiple voices: Introduction to bilingualism*. Blackwell Publishers: Malden, MA.
- Myhill, J. (2004). *Languages in Jewish society. Towards a new understanding*. Clevedon, UK: Multilingual Matters.
- Nicolás i Amorós, M. (1998). *La història de la llengua catalana: la construcció d'un discurs*. València; Barcelona: Institut Interuniversitari de Filologia Valenciana; Publicacions de l'Abadia de Montserrat.
- Ninyoles, R.L. (1972). *Idioma y poder social*. Madrid: Tecnos.
- Payrató, Ll. (1998). *Oralment. Estudis de variació funcional*. Barcelona: Secció de Lingüística Catalana, Departament de Filologia Catalana, Universitat de Barcelona - Publicacions de l'Abadia de Montserrat.
- Pons, E. i Sorolla, N. (coord.) (2009). *Informe sobre la siutació de la llengua catalana (2005-2007)*. Barcelona: Observatori de la Llengua Catalana. <http://www.observatoridelallengua.cat/observatori.php?llengua=ca>.
- Pons, E. i Vila i Moreno, F.X. (2005). *Informe sobre la situació de la llengua catalana (2003-2004)*. Bartzelona: Observatori de la Llengua. http://www.observatoridelallengua.org/arxius_documents/informe6_ok.pdf.
- Pujolar, J. (1997). *De què vas, tio?* Barcelona: Empúries.
- Querol, E. (2004). "Les representacions de la sociolingüística catalana", *Caplletra*, 37, 63-90. 24 |

- Ricento, T. (2006). "Theoretical perspectives in language policy", en: Ricento, T. (ed.). *An introduction to language policy. Theory and method*. Malden, MA; Oxford, UK; Victoria, Australia: Blackwell, 3-9.
- Riley, K.C. (2010). "28. Language socialization", en: Spolsky, B.F. i Hult, M. (ed.). *The handbook of educational linguistics*. Oxford: Blackwell, pàg. 398-410.
- Robinson, W. Peter i H. Giles. (ed.) (2001). *The new handbook of language and social psychology*. Chichester: Wiley.
- Scheter, M. (2000). "From language to languaging: discursive practices and theoretical models", *Pragmatics and cognition* 8, 2, 423-434.
- Schieffelin, B.B., Woolard, K. i Kroskrity, D. (ed.) (1998). *Language Ideologies. Practice and Theory*. Oxford: Oxford University Press.
- Spolsky, B. (1998). *Sociolinguistics*. Oxford: Oxford University Press.
- Spolsky, B. (2004). *Language Policy*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Spolsky, B. (2009). *Language management*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Spolsky, B. i Shohamy, E. (2001). "Hebrew after a century of RLS efforts", en: Fishman, J.A. *Can Threatened Languages Be Saved? Reversing Language Shift, Revisited: A 21st Century Perspective*. Clevedon: Multilingual Matters, 350-363.
- Swann, J., Deumert, A., Lillis, T. i Mesthrie, R. (ed.) (2004). *A Dictionary of Sociolinguistics*. Edinburgh: Edinburgh University Press.
- Tollefson, J. (1995). *Language Policy and Language Education: Critical Approaches*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Tuson, J. (1998). *Mal de llengües. A l'entorn dels prejudicis lingüístics*. Barcelona: Empúries.
- van Dijk, T.A. (1998). *Ideology. A Multidisciplinary Approach*. London: Sage.
- Vila i Moreno, F.X. (1996). *When Classes Are Over. Language Choice and Language Contact in Bilingual Education in Catalonia* (tesi doctoral inèdia). Facultat der Letteren en Wijsbegeerte, Vrije Universiteit Brussel.
- Vila i Moreno, F.X. (2004). "Aportacions de les altres ciències socials a la sociolingüística catalana", *Caplletra*, 37, 91-154.
- Vila i Moreno, F.X. (2005a). "Barcelona (Catalonia): Language, Education and Ideology in an integrationist society", en: Witte, E., Van Mensel, L., Pierrard, M., Mettwie, L., Housen, A. i De Groof, R. *Language, Attitudes & Education in Multilingual Cities*. Wetteren: Universa Press, 53-85.
- Vila i Moreno, F.X. (2005b). "5. Els usos lingüístics interpersonals fora de la llar. Els usos lingüístics en general", en Torres, J. (coord.). *Es-*

- tadística sobre els usos lingüístics a Catalunya 2003. Llengua i societat a Catalunya en els inicis del segle XXI.* Barcelona: Secretaria General de Política Lingüística, Generalitat de Catalunya, 109-143.
- Villena Ponsoda, J.A. (1992). *Fundamentos del pensamiento social sobre el lenguaje. Constitución y crítica de la sociolingüística.* Editorial Librería Ágora: Málaga.
- Weinreich, U. (1953). *Languages in Contact. Findings and Problems.* New York: Andre Martinet Linguistic Circle.
- Wexler, P. (1990). *The Schizoid Nature of Modern Hebrew: A Slavic Language in Search of a Semitic Past.* Wiesbaden: Otto Harrassowitz.
- Williams, G. (1992). *Sociolinguistics. A Sociological Critique.* London: Routledge.
- Winford, D. (2003). *An Introduction to Contact Linguistics.* Oxford: Blackwell Publishing.
- Woolard, K.A. (1985). "Language variation and cultural hegemony: Toward an integration of sociolinguistic and social theory", *American Ethnologist*, 12, 738-748.
- Woolard, K.A. (1989). *Double Talk. Bilingualism and the Policy of Ethnicity in Catalonia.* Stanford: Stanford University Press.
- Wortham, S. (2010). "7. Linguistic anthropology", en: Spolsky, B. i Hult F.M. *The handbook of educational linguistics.* Oxford: Blackwell, 83-97.
- Zuckermann, G. (2006). "A New Vision for "Israeli Hebrew": Theoretical and Practical Implications of Analysing Israel's Main Language as a Semi-Engineered Semito-European Hybrid Language". *Journal of Modern Jewish Studies*, núm. 5, 1, 57-71. Consultable en: <http://www.zuckermann.org/pdf/new-vision.pdf>.
- Zuckermann, G. (2008). "Hybridity versus Revivability: Multiple Causation, Forms and Patterns in the Israeli Language". *Esberrany*. Consultable en: http://www.zuckermann.org/pdf/Hybridity_versus_R